

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO  
GRADUDUN TITULURAKO PROBA LIBREAK**

**Gizarte Zientzien esparrua**

**DATU PERTSONALAK**

Deiturak..... Izena.....

NANa.....

Helbidea: Kalea/plaza.....zk.....PK.....

Herria..... Probintzia..... Telefonoa.....

**Deialdia: 2013ko maiatza**



**Nafarroako Gobernua**  
Hezkuntza Departamentua

PROPOSATURIKO ZAZPI GALDERETATIK BOST AUKERATU:

(Puntu 1 bakoitzeko)

1. Azaldu zertan datzan jarduera ekonomikoa eta zer diren ekoizpen faktoreak.
2. Nekazaritza motak: aipa itzazu (informazioa antolatuz) eta mota horietako bat azaldu.
3. Energia iturriak Espainian: arazoak eta jarraitu beharreko politikak.
4. Hirugarren Sektorereko jardueren sailkapena egin ezazu, garrantziaren arabera, eta adibideak eman.
5. Biztanleria: jaiotza tasa, hilkortasun tasa, berezko hazkundera, migrazio mugimenduak, hazkunde erreala.
6. Europar Batasunaren sorrera prozesua: Seiren Europatik gaur egunera arte hurrenez hurren izan diren handiagotzeak.
7. Mapa osatu, mendikate eta ibai nagusien izenak dagokien tokian paratuz:





**PROPOSATURIKO ZAZPI GALDERETATIK BOST AUKERATU:**

(Puntu 1 bakoitzeko)

1. Zeri deitzen zaio Antzinako Erregimena? Zer ezaugarri zituen politikaren, ekonomiaren eta gizartearen ikuspuntutik begiratuta?
2. Azal ezazu Ipar Amerikako kolonia ingelesten independentziarekin bukatu zen iraultza. Denboran koka ezazu.
3. Azal ezazu zer izan zen Espainiako Independentzia Gerra eta kronologikoki koka ezazu. Espainiako zein erregek bete zuen tronua gerra hori bukatzean?
4. Industria-iraultzan, funtsean, zer gertatu zen? Noiz eta non gertatu zen hasieran? Zein motatako industrian aplikatu ziren lehendabizi lan metodo berriak?
5. Azal ezazu zertan datzan liberalismo politikoa. Ideologia hori zein erregetzatan ezarri zen Espainian? Azal ezazu zer liskar eragin zituen XIX. mendean zehar.
6. Azaldu kolonialismoaren fenomenoaren eta haren zergatiak. Zein izan ziren potentzia kolonial nagusiak? Eta kolonizaturiko eremuak?
7. Zer dira mugimendu faxistak? Noiz gertatu ziren? Zer ondorio eragin zituzten?



**GIZARTE ZIENTZIEN ESPARRUKO PUNTUAZIOA, OSOTARA: 10 PUNTU**